

2017KO GARAGARRILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2017ko garagarrilaren 27an 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV).
- GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

AITOR APRAIZ IMATZ jauna, EAJ-PNV udal taldeko zinegotzia ez da bertaratu.

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehenakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2017KO BAGILAREN 29AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2017ko bagilaren 29an egindako ohiko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori ago batez onartu dabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

194/2017.- Lan legepeko beharginak kontratatzea udal lantalderako.

195/2017.- Nominak onesteko ebazpena.

196/2017.- Hasikerie jaialdia egiteko udal baimena.

197/2017.- Merkatu solidarioa antolatzeke baimena.

198/2017.- Izozki denda baten egokitzapen obrak egiteko lizentzia,

199/2017.- Zarama tasaren errolda onesteko ebazpena.

200/2017.- Trakzio mekanikozko ibilgailuen zerga erroldaren ebazpena.

201/2017.- Hasikeria jaialdian euria egin ezkeru, frontoia erabiltzeko baimena.

202/2017.- Obren kontratu txikia esleitzeko ebazpena.

203/2017.- Kontratu txikia esleitzeko ebazpena.

204/2017.- Obren kontratu txikia esleitzeko ebazpena.

205/2017.- Merkatu txikia egiteko baimena.

206/2017.- Aurkezpen baterako tresneria ixteko baimena.

207/2017.- Hitzaldi baterako tresneria ixteko baimena.

208/2017.- Memoriaren eguna egiteko baimena.

209/2017.- Behin betiko fidantza itzultzeko ebazpena.

210/2017.- Komunitate bateri obra lizentzia emotea.

211/2017.- Jendurreko prozedura bidez energia elektrikoa hornitzeko kontratazino espedientea onartzea.

212/2017.- Ibilgailu bat prozedura negoziatu bidez kontratatzeke ebazpena.

213/2017.- obligazioen ordainketa onartzea.

214/2017.- Erroldan pertsona baten ofiziozko baja emateko espedienteari ekitea.

215/2017.- Surf biltzarraren barruan artisautza erakusketa eta salmenta egiteko eta janari postu ibiltari bat jartzeko baimena.

216/2017.- Kontratu txikia esleitzeko ebazpena.

217/2017.- Zor bat kobratzeko betearazpen epeari ekitea.

Ostean, Amets Jauregizar alkate andreak, dekretu honeei buruzko azalpenak emon dauz:

202/2017 dekretua.- BI SPORT 2.011, S.L. enpresek kiroldegian azpiegituren mantentze obrak egin dauz, dekretu horren bidez egin jakon adjudikazioaren arabera, beti be berak aurkeztutako 23/2017 zk. aurrekontuan oinarrituz. Dana dala, hori egin aurretiaz obrak egitea udalari jagokola ziurtatu dogu, enpresa horrek kiroldegia kudeatzeko udalagaz sinatuta daukan kontratuaren baldintza teknikoak eta administratiboak aztertu ostean.

203/2017 dekretua.- Bakioko bide jakin batzuetan ibilgailuak aparkatzeko denbora mugatzeari, antolatzeari eta kontrolatzeari buruzko zerbitzuaren kudeaketa (TAO) kontratua urtebeterako luzatu da, luzapen epea 2017/07/01 kontetan hasita. Zerbitzu hori "GERTEK, SOCIEDAD DE GESTIONES Y SERVICIOS, S.A." enpresek emoten dau.

Beste aldetik, (APS) ASESORAMIENTO EN PROCEDIMIENTO SANCIONADOR, S.L. enpresek Bakioko Udalean trafikoaren eta aparkaleku arautuen arloan (TAO) eta animalien babes eta jaubetza esparruan zigor prozeduraren kudeaketa osoan laguntzeko eta lankidetzan jarduteko zerbitzua emoten dau, eta udalagaz sinatuta daukan kontratua 2017/07/03an amaitu zan.

Ikusirik, batetik Gertek enpresegaz sinatutako kontratua urtebeterako luzatu dala, eta, bestetik, APS enpresek tramitatzen dauzan isun gehienak TAO zerbitzuari jagokozala, pentsau da APS enpresei urtebeteko kontratu txikia egitea 2017/07/04tik kontetan hasita, kontuan izanik enpresa horren kontratua dala-eta 2016ko gastuen likidazioa, gitxi gorabehera, 7.000 eurokoa izan dala eta enpresek kontratu txikia egiteko aurkeztutako proposamena lehen egindako berdina dala.

204/2017 dekretua.- Hiru enpresen eskaintzak jaso eta euroi buruz idatzitako txosten teknikoa kontuan izanik, "Aplicaciones Eléctricas IZARAK. S.L". enpresei kontratu txiki hau esleitu jako: udaletxeko eta "Urkitza" ikastetxeko argiteriaren instalazioan obrak egitea argindarra hobetze aldera. Obrak egiteko hile biko epea izango dau enpresek eta obren prezioa, barriz, hauxe da:

"Urkitza" ikastetxeko argiteria aldatzea: 13.936,20€ + BEZ

Udaletxeko argiteria aldatzea: 20.321,45€ + BEZ

Esan beharra dago, obra horren %60 kostua ordaintzeko, Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza emotea erabagi daua.

211/2017 dekretua.- Udal instalazinoak behar dan modura funtzionatzeko energiaren hornidurea bermatzea udalaren zeregina dan ezker, horretarako, energia elektrikoaren hornidurea kontratatzeke espedienteari hasikerea emon jako, instalazinoetan dagoan beharizana asetzeko, pertsonentzat eta herrientzat segurua dan energia-iturri berriztagarriaren bidez, horrek hauxe ekarriko dauala kontuan izanik: tarifen optimizazinoa, instalazinoetako energia erreaktiboaren konpentsazinoa eta laguntza tekniko pertsonala.

Lizitazino aurrekontua 43.209,99 eurokoa da. Helburuak:

Udalaren beharizanak asetzeko energia berriztagarria %100 izatea.

Aurrezteko neurriak: udaleko instalazino bakoetarako kontratauta dagozan potentziak egokitzea energiaren kontsumoa egokia izan daiten, eta horrela argindarraren faktorea merkatzea lortu eta, ondorioz, udal aurrekontua errealdadara egokitzea.

Udaleko ordezkariari eta beharginei laguntza pertsonala emotea argindarraren arloan formazino gaurkotua izateko, bai funtzionamenduari buruz, bai eta efizientzia energetikoari buruz be, udalaren instalazinoetako eta zerbitzuetako argindarrari buruz ezagutza eduki daien ekintzak eta neurriak hartzeko orduan, argindarren aurrezpena eta ekonomia gogoan izan behar dala kontuan hartuz.

Horrezaz gain, planteatzen da herritarrek informazinoa eta formazinoa jasotea, beti be banakako eta kolektiboko bizimoduan danak inplikatzeko argindarraren kontsumoa era egokian egiteko.

212/2017 dekretua.- zerbitzu publiko beharizanetarako ezinbestekoa da erabilera askotarako 4 edo 5ateko ibilgailua erostea. Beraz, ibilgailua erosteko kontratazino espedienteari hasikerea emon jako.

Publizidade bako prozedura negoziatuaren bidez izapidetuko da adjudikazino prozedurea, eta horretarako ohiko tramitazinoa erabiliko da. Lizitazinoaren zenbatekoa 28.000,00 euro (BEZ barruan dala) eta gonbidatzen diran enpresakaz erosketaren baldintzak negoziatzeko aukera izateko kontuan hartuz, prozedura negoziatua izapidetuko da. Hori dala eta, espedientean klausula administratibo berezien orria dago.

217/2017 dekretua.- SUR.6 Elexalde eremu urbanizagarrian legearen aldetik udalari jagokon aprobetxamendua "Promociones Gailur S.L." enpreseari ordainarazteko, horrek eta Bakioko Udalak 2012/02/12ko hitzarmena sinatu eben, eta, bertan jasoten da bai enpreseak 150.000,00 euroko zorra eukala, bai eta hori ordaintzeko modua be. Ordaindu ez eban ezker, Alkatetzaren 2016/182 dekretuaren bidez, udalak erabagi eban enpreseak zorra zatika ordaintzea. Horrela bada, zorra gehi interesak 36 hiletan banatuta ordainduko ziran, hileru 4.167 euro ordainduz.

Aitatu beharrekoa da enpresek hilero-hilero kuota ordaintzen hasi zala, baina 2017/05/2an 2017ko apirileko kuota ordaindu ostean, hurrengo hileetako kuotarik ez daukala ordaindu ikusiz, 217/2017ko dekretuaren bidez, premiamendu prozedura tramitatzea erabagi da, udalari egun horretan zor deutson jaso ahal izateko, hau da 95.832,74 euro gehi interesak 4.803,61 euro, guztira 100.636,69 euro.

3.- BAKIOKO UDALBATZAK, 2017/03/30EAN EGINDAKO OSOKO BILKURAN, “ARITXETA” BASERRIAREN MENDEBALDEKO ZATIAREN LURSAILARI BURUZKO 2015/03/15EKO URIGINTZAKO HITZARMENA EZESTE ERABAGI EBALA ETA, JOSEBA BILBAO ABIO ETA FAMILIAK ERABAGI HORREN AURKA AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZE HELEGITEAREN GANEKO ERABAGIA HARTZEA, HALA BEHAR BALITZ.

A) 2017ko martiaren 30eko udalbatzan jasotako aurrekari honeek gogoratu beharra dagoz:

LEHENA.- Behin aldeek (Bilbao Abio familiak eta Udalak) hitzarmen urbanistikoaren hasikerako testua sinatu ostean, alkatetzaren martiaren 18ko 69/2015 probidentzia bitartez erabagi zan jendaurrean imintea hogeitun eguneko epean; horretarako, beharrezko iragarkia argitaratu zan 2015/04/17ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, iragarkien udal taulan eta webgunean, egokitzen jo ezker, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

BIGARRENA.- 2015/05/13ko idatzi bitartez, Aritxeta baserriko lursailaren titularrari entzunaldia emon jakon (Zubiaurrealde auzoa, 44-eskuma); persona horrek ez eban alegaziorik aurkeztu.

Patxi Gutiérrez García jaunak, 2015/05/07an aurkeztutako idatzi bitartez, eskatu eban hitzarmenaren onarpenerako espedientea gelditzeko, alegazio idatzian jasotako arrazoien arabera, besteak beste honeexek: beharrezkoa ez zalako herriko urigintzako plangintza berrikusteko prozedura tramitatzen egonik, indarreko urigintza plangintza eta Lurzoruari eta Urigintzari buruzko Legea beteten ez ebalako, udalak jasoten ebazan onuretan defizit bat egoalako jaubetzak jasotakoan aldean, trukutzen diran lurzati bakotxaren balorazio teknikorik ez egoalako eta “Aritxeta” jardununean egin ahalko ziran bost etxebizitzak gauzatzeko orduan arazoak egon eitezkelako, albotik gorde beharreko tartek zirala-eta.

HIRUGARRENA.- Joseba Bilbao jaunari alegazio idatzia jakinarazo jakon, eta, halan 2015/05/29an, senitartekoek eta berak sinatutako alegazio idatzia aurkeztu eban, Patxi Gutiérrez jaunarenak ezesteko arrazoiak azalduz eta udalari hitzarmena berresteko (beti be hitzarmenaren baldintzak aintzat hartuta) eta hitzarmenari lotutako arau subsidiarioen aldarazpen zehatzaren tramitazioa ebatzeko eskatuz.

LAUGARRENA.- Joseba Bilbao Abio jaunak, 2016ko maiatzaren 31n (sarrera erregistroko zenbakia 834.a), idatzi bat aurkeztu eban, hitzarmena onartzeko udal prozedurari amaiera emotea eskatuz, beti be udalbatzaren beharrezko erabagi bitartez.

BOSGARRENA.- Puntu honetara helduta, honakoa esan beharra dago:

a) Udalbatzaren eskumena da hitzarmenaren onarpenaren ganeko erabagia hartzea, Toki Araubideko Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikulua ezarritakoagaz bat etorriz, beti be Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluari jagokonez.

b) Hitzarmenaren edukiari jagokonez, jarraian labur aitatzen diran eragiketak aurrera eroan behar dira:

1.- Hitzarmena aurreko udal gobernuak eta Bilbao Abio familiak izandako negoziazioen emaitza izan da, alkarren interesen ondorioz. Alde batetik, familia horrenak, Aritxeta baserriko mendebaldeko erdian kokatutako aldea antolatzeke, itxiturak eta azpiegituren zerbitzuak ezarrit. Beste aldetik, udalarenak, lurzati bat eskuratzeko, ezelako kostu ekonomiko barik, Estepona ibaiaren ondoan, ibilguaren etorkizuneko zabaltze lanak egin ahal izateko.

Aritxeta baserriaren mendebaldeko erdiaren lursailetik 603,18 m²ko lurzati bat bereizten da (Estepona ibaiaren ibilgua handitzeko etorkizuneko ukipen eremua) eta hori Bakioko Udalaren 603,18 m²ko beste lurzati baten truke aldatzen da; azken lurzati hori bereiztuko litzateke Solorrazarreko plan partzaileko erabilera aske eta herri jabariko eremuko lursailetik (berdegunea).

2.- Aritxeta baserriko mendebaleko erdiaren lursaila 2.990,96 m²ko azalera batez geratuko litzateke, gehienez bost etxebizitza eregiteko moduko jardunune bat eratuz (gaur egun bat besterik ez dago) eta 1.044,06 m²ko eraikigarritasunagaz (planimetrikoaren arabera, lursail horretan gaur egun dagozan sei eraikinek batzen daben azalera). Jardunune hori aurrera eroan ahal izateko, Bakioko Udalak Bakioko arau subsidiarioen aldarazpena sustatuko leuke Aritxetan, eta, horretarako, tramitazio hori aurrera erotea erabagiko leuke hitzarmena onartzeko bilkura berean.

3.- Behin aldarazpena behin betiko onartu ostean, gorago aitatutako banaketak eta trukeak eskritura publikoan ezarri eta finkak multzokatuko litzatekez.

SEIGARRENA.- Udal arkitekto aholkulariak txostena prestatu eban 2016ko garagarriaren 6an; agiri horretan aitatzen da hitzarmena gauzatzeko hasieran txosten teknikoa falta dala, eta zehazten dira hitzarmena ez onartzeko bidezko arrazoiak; halan, proposatzen da inguru horretako antolamenduaren arloko erabagiak atzeratzea urigintza plangintzaren berrikuspenarenera arte. Gauzak horrela, hitzarmenaren onarpenaren kontrako txostena egin eban, honako arrazoietan oinarrituz:

BFAk adierazo dau ez dala posible etxebizitzaren gehikuntza dakarren urigintza plangintzaren aldarazpen zehatzak izapidetzea.

Ez dago hitzarmena izapidetzeko behar besteko arrazoi teknikorik eta ez dago justifikaturik interes publikoa.

Egindako alegazino partikularrak baietsia izateko behar beste argudio jasoten dauz; hori dala eta, proposatzen da Patxi Gutiérrez García jaunak aurkeztutako alegazinoa baiestea.

Inguru horrerik buruz urigintza arloan hartu beharreko erabagiak urigintza plangintzaren berrikuspenaren barruan aztertzea, Beraz, ez da bidezkoa hitzarmen hori onartzea .

Beraz, Bakioko Udalbatzak, 2017/03/30ean egindako osoko bileran erabagi hau hartu eban:

“ARITXETA” baserriaren mendebaldeko zatiari buruzko 2015/03/15eko urigintzako hitzarmena ez onartzea

Inguru horrerik buruz urigintza arloan hartu beharreko erabagiak urigintza plangintzaren berrikuspenaren barruan aztertzea.

B) Joseba Bilbao jaunak, bere eta bere familiaren izenean, 2017/03/30eko erabagiaren aurka, 23/05/2017an berraztertze errekurtsua aurkeztu eban.

Errekurtso horretan, hauexek jasoten da: alde batetik, udal erabagia ez dagoala arrazoituta; eta, bestetik, hitzarmenaren edukien aldeko arrazoi teknikoak, udal arkitektoak 2016/07/06an txostenean eta Patxi Gutierrez jaunak 2015/05/07an aurkeztutako alegazino idazkian adierazitakoari aurre eginaz.

Joseba Bilbao jaunak, oinarrietan sinatuta dagoan hitzarmenagaz bat datorren hitzarmen barri bat aurkeztu dau, urigintza plangintzari jagokonez, berraztertze errekurtsuaren paragrafoetan jarten diran parametroei eta aukerei egokitzuz. Eta bere proposamena da hitzarmen barri horren edukia udala berrikusten dagoan herriko urigintza plangintzan orokorraren barruan sartu eta udalbatzak plangintza hori hasikera batean onartu ostean, “Aritxeta” baserriaren mendebaldeko lursailari jagokonez, arau subsidiarioen aldarazpen puntuala tramitatzea. Horrela egitearen arrazoia hauexek da: herriko urigintza plangintza barria behin betiko onartu arte denbora asko igaroko da, eta “Aritxeta” baserriaren mendebaldeko lursailean dagoan uholde arriskuari lehenbailehen urtenbidea emon beharra dago, eta, beraz, ez dago beste biderik indarrean dagozan arau subsidiarioen aldarazpen puntualaren tramitazioa aparte egitea baino.

Horrela tramitatzeari buruz, adierazo dau Bizkaiko Foru Aldundiko Urigintza-Plangintzaren Zerbitzuaren Burutzak adierazo deusela horrela ahal dala egin.

Errekurtsogile horrek udalari berraztertze errekurtsuan hauxe eskatze deuto:

1º Que el Ayuntamiento Pleno admita, examine y acepte lo expuesto y solicitado en el presente recurso de reposición, en especial, lo indicado en mi escrito presentado el 29/05/2015, y que se adjunta, sobre cuyo contenido pido que se pronuncie expresamente, aceptándolo y asumiéndolo.

2º Que el Ayuntamiento Pleno desestime las alegaciones presentadas pro D. Patxi Gutiérrez y apruebe, por el contrario, los criterios, objetivos y conceptos del Convenio firmado por el Alcalde de Bakio y los propietarios de la mitad oeste del caserío Aritxeta el 15 de marzo de 2015.

3º Que el Ayuntamiento Pleno, a la vista del cambio de la situación del planeamiento urbanístico del municipio, valide el borrador de Convenio que se adjunta a este recurso de reposición y faculte a la Alcaldesa para su firma.

Beraz, Udal arkitektoak errekurtsuan azaltzen diran arrazoi teknikoen ganean 2017/07/04ko txostena egin dau. Udal idazkariak be, bere aldetik, 2017/07/14ko txostena egin dau, arrazoituz udalbatzaren erabagia udal arkitektoaren 2016/07/06ko txostenean oinarrituta egoala.

Udal arkitektoak, 2017/07/04ko txosten horretan hauxe proposatzen dau:

BFAk adierazo dau ez dala posible etxebizitzaren gehikuntza dakarren urigintza plangintzaren aldarazpen zehatzak izapidetzea.

Ez dago hitzarmena izapidetzeko behar besteko arrazoi teknikorik eta ez dago justifikaturik interes publikoa.

Inguru horrerik buruz urigintza arloan hartu beharreko erabagiak urigintza plangintzaren berrikuspenaren barruan aztertzea, Beraz, ez da bidezkoa hitzarmen hori onartzea .

Horrez ganera, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017/07/03ko txostena jaso da, esanez ezin dala hitzarmenean jasoten dan edukiagaz indarrean dagozan arau subsidiarioak modu puntualean aldarazo, txosten horretan azaltzen diran arrazoiak dirala-eta.

C) Joseba Bilbaok 2017/03/30eko udalbatzaren erabagiaren aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsu dala eta, Amets Jauregizar alkate andreak, EH-Bildu udal taldearen izenean, hauxe proposatzen dau:

- *Agiri honeetan azaltzen diran arrazoiak dirala-eta berraztertze errekurtsua atzera botatea.*

1 Udal arkitektoaren txostena.

2 Udal idazkariaren txostena.

3.Foru Aldundiko lurraldearen batuketari buruzko zuzendari orokorraren txostena.

Uste dogu txosten horreek udalbatzak hitzarmenari buruz, aurtengo martiaren 30ean, hartutako erabagia berronetsi baino ez dabela egiten. Izan be, arrazoiak, laburbilduz, honeexek dira.

Eraikigarritasunaren eta etxebizitza kopuruaren gehikuntza.

Hitzarmena ez da onuragarria herri interesaren ikuspuntutik.

Ez dago justifikazino teknikorik.

Esateko moduan gagoz hitzarmenean jasoten dan urigintza antolamendua ez datorrela bat herriko urigintzako plangintza barriaren erispideakaz. Izan be, plangintza barrian erreka eta ibai alboetan eraikinik ez egitea aurreikusten da.

Planteamenduak "Aritxeta" baserri osoak hartzen dauan lusailari eragin beharko leuskio, zati bateri eragin beharrean.

Herriko urigintza plangintza barriak urigintza antolamendua egiteko orduan herri osoa hartu behar dau kontuan.

Edozelan be, uste dogu hitzarmenari ezezkoa esatea ez dauala atea ixten etorkizunean konponbide bat bilatzeko.

Alain Gómez zinegotziak, BakioBai udal taldearen izenean, hauxe adierazo dau:

"Arratsaldeon guztioi y especialmente a los vecinos que han presentando este recurso de reposición. Vamos a proceder en el limitado tiempo de nuestra intervención a explicar este punto.

En primer lugar, nos gustaría señalar que se trata de un asunto complejo en el que hemos analizado la copiosa documentación obrante en diferentes expedientes administrativos y en el que dada la complejidad e importancia hemos decidido asesorarnos con un abogado.

Seguido vamos a comenzar a responder al recurso de los vecinos, indicando que no nos hemos podido reunir previamente a este pleno con ellos y que lo haremos en breve porque que creemos que escucharles, atenderles y explicarles nuestra postura y argumentos es parte del proceso político de gran importancia para nosotros.

Os damos la razón en que la tardanza en la resolución de este tema no ha sido adecuada, especialmente tras ver los análisis de los expedientes administrativos donde hemos podido constatar que este asunto viene de lejos. Concretamente viene de unas alegaciones efectuadas en 2008 ahora recurrentes durante la tramitación de la Modificación Puntual para la creación de un Sistema General Fluvial y un Sistema General Vial que vienen a hacer una propuesta en similares términos y siendo el núcleo de la propuesta el mismo. Según comento el Secretario municipal a nuestro abogado, tras numerosas alegaciones (según expediente 39), se abandonó su tramitación y no fueron contestadas y siendo el gran número de alegaciones la razón de dicho abandono.

Cuestión que nos parece muy grave y dado que envía un mensaje muy negativo a los vecinos y vecinas sobre cómo se atiende a los mismos y a la participación ciudadana. Toda intervención de los vecinos viene fundamentada en un interés legítimo, que pudiendo ser adecuado o no, como representantes políticos deberíamos tutelar como es debido y además deja patente que el urbanismo de este pueblo se ha llevado sin planificación y un orden y que ahora quien pagan las consecuencias los vecinos y eso es algo que queremos denunciar y cambiar.

Respecto a los demás aspectos de vuestro recurso no poderos daros la razón. Yendo por puntos:

1) Hemos constatado que se os notifico de la manera debida y de acuerdo al artículo 40 y siguientes de la Ley 39/2015 de procedimiento administrativo común.

2) Indicaros que vuestro escrito rechazando las alegaciones estimadas de un vecino, constan en el expediente y las hemos leído. Señalaros también en este punto que el propio informe del arquitecto municipal que os fue notificado, cita vuestro escrito (aunque es cierto de manera somera) y lo tuvo en cuenta a la hora de rechazar las mismas.

En este punto también indicar que coincidimos con vosotros que el periodo para contestar ha sido demasiado largo y que se os debía haber contestado mucho antes.

3) Sobre la posibilidad jurídica de materializar esta modificación puntual, analizados los informes y expedientes administrativos, coincidimos que no es posible aprobarla y que debe rechazarse definitivamente esta propuesta de modificación puntual. Eso mismo ratifica además el último informe de la Diputación.

Asimismo, consideramos que no es a priori la actuación urbanística más adecuada para los intereses públicos, dado que se pretende realizar una actuación aislada sin valorar la problemática de todo el cauce y sin que haya informes técnicos sobre la idoneidad de la solución urbanística respecto al cauce ni sobre la misma modificación puntual propuesta.

Aspecto, que de nuevo nos preocupa mucho porque demuestra la grave falta de planificación y gestión cuyas consecuencias están pagando los vecinos. Se han ido realizando modificaciones puntuales sin valorar la afeción global que podían acarrear ni prever con plazos adecuados la revisión de la ordenación urbanística completa que ahora va a impedir buscar soluciones a muchos problemas.

Con todo esto, debemos denegar el recurso de reposición y rechazar definitivamente la modificación puntual propuesta. Si bien, queremos dejar claro un mensaje. Desde Bakio Bai vamos a trabajar para que situaciones como estas no se repitan, porque tienen graves implicaciones para los vecinos y vecinas y como en este caso son consecuencia de una mala gestión y vamos a seguir para que el urbanismo de este pueblo se planifique y sea adecuado para los intereses de los vecinos, detectando toda

problemática existente para darle solución y previendo los futuros problemas y dejando los cauces de su gestión y desarrollo atados lo mejor posible”.

Azkenik, zinegotziek hemen aitaturako agiri guztien ganean jakitun diran ezkerok, bai eta tramitatutako espedientearen ganean be, udal arkitektoaren 04/07/2017ko txostena eta udal idazkariaren 14/07/2017ko txostena eta Foru Aldundiaren 03/07/2017ko txostena kontuan hartuz, EH Bildu taldea osotzen daben lau zinegotzien (Amets Jauregizar, Isabel Barturen, Aitor Ibarzabal eta Egoitz Abio) eta BakioBai taldea osotzen daben bi zinegotzien (Alain Gómez eta Josu Garai) aldeko botoagaz, korporazinoa legez osotzen daben gehiengo osoa izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu dau:

Joseba Bilbao Abio jaunak bere eta familiaren izenean, aurkeztutako berraztertze errekurtsua atzera botatea.

“Aritxeta” inguruari buruz urigintza arloan hartu beharreko erabagiak urigintza plangintzaren berrikuspenaren barruan aztertzea.

Horrenbestez, Udalbatzak 2017/03/30 egindako osoko bilkuran hartutako erabagia berroneste.

EAJ-PNV taldeko hiru zinegotzi (Iker Muruaga, José Luis Urrutia eta Gorka Azaola) abstenidu egin dira.

José Antonio Abio zinegotziak, EAJ/PNV taldekoak, ez dau parte hartu ez eztabaidan, ezta bozkatzeko orduan be, espedientearen interesduna dalako.

4.- 2017KO EKITALDIARI JAGOKON UDAL AURREKONTUAREN BETEARAZPEN EGOEREAREN BARRI EMOTEA, BIGARREN HIRUHILEKOARI JAGOKONEZ, HAU DA, BAGILAREN 30RA ARTE.

Aitaturako gaia dala-eta zinegotziek horrerri buruzko agiria daukien ezkerok, horren barri emon da, beste barik.

5.- 2017KO BIGARREN HIRUHILEKOARI JAGOKOZAN BATEZ BESTEKO ORDAINKETA EPEAREN ETA 27. BERANKORTASUN TXOSTENAREN BARRI EMOTEA.

5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua araberak, diruzainek edo kontu-hartzaileek hiru hilabetetik hiruhilabetera txostena egin behar dabe, onartutako fakturen ordainketen betearazpenari buruzko egoera zein dan azalduz, eta horren barri udalbatzari emon.

Hori dala eta, Idazkari-kontuhartzaileak 2017ko garagarriaren 21eko txostena egin dau udalbatzari jakinarazoteko. Izan be, txosten horren eguna erreferentzia modura hartuta

2017ko bigarren hiruhilekoari jagokon berankortasuneran datuak honeexek dira, beti be bertan azaltzen danaren arabera:

HIRUHILEKOAN EGINDAKO ORDAINKETAK	
<i>Ordaindu diran legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaindu diran legezko epe barruan</i>
316.055,34€	251 ordainketa kopuru
<i>Ordaindu diran legezko epetik kanpora</i>	<i>Ordaindu diran legezko epe kanpora</i>
3.406,13 €	3 ordainketa kopuru

HIRUHILEKOAN ORDAINTZEKO DAUDENAK	
<i>Ordaintzeko legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaintzeko legezko epetik kanpo</i>
64.479,23€	3.853,66 €

Horreei buruzko datuak txosten horrerri erantsitako zerrendan agiri da.

Horrezaz gain, 2017ko bigarren hiruhilekoari jagokozan hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epe orokorra hauxe izan da: -7,86 egun.

Zinegotziak horren guztiorren jakinaren ganean geratu dira.

6.- EUSKAL HERRIKO ITSASERTZ MUGARTEARI ESKABIDE HAU EGITEA: ITSASO ETA LEHORRAREN ARTEKO JABARI PUBLIKOAREN BABES-ZORGUNEA 200 METROKOA IZATEA URBANIZAEZINEKO LURZORUAN

Bakioko Udalak, 2017ko martian, Euskal Herriko Itsasertz Mugarteari hauxe eskatu eutsen:

Batetik itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren babes-zorgunea 200 metrora zabaltzeko lurzoru urbanizaezinean, beti be kostaldea ahalik eta ondoen babesteko ingurumen aldetik daukan garrantzia ikusita.

Bestetik, erabilgarria izango dan bide-zortasunaren eta itsasoko sarbidearen zehaztaper grafikoa egiteko, beti be uri-lurrean dagoan labarraren ganetik jendea oinez ibili daiten, eta erabilgarria izango dan bide-zortasunaren eta itsasoko sarbidearen proiektua idatzi eta egokitzaper obrak egiteko.

Hori dala eta, Euskal Herriko Itsasertz Mugartearen 2017/06/19ko idatzia jaso da, eta zinegotzi guztiek agiri horren eta udal arkitektoaren 2017/02/14ko txostenaren barri daukie.

Segiduan, zinegotziak botoa emotea ekin deutse eta, ondorioz, EH Bildu taldea osotzen daben lau zinegotzien (Amets Jauregizar, Isabel Barturen, Aitor Ibarzabal eta Egoitz Abio) eta BakioBai taldea osotzen daben bi zinegotzien (Alain Gómez eta Josu Garai) aldeko botoagaz, korporazioa legez osotzen daben gehiengo osoa izanik,

Udalaren Osoko Bilkurak, udal arkitektoaren 2017/02/14ko txostena eta Euskal Herriko Itsasertz Mugartearen 2017/06/19ko idatzia kontuan hartuz,erabagi hau hartu dau:

Euskal Herriko Itsasertz Mugarteari haxe eskatzea:

a) Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren babes-zorgunea 200 metroraino zabaltzea lurzoru urbanizaezinean eta, beraz, horretarako beharrezko tramiteak egitea.

b) Erabilgarria izango dan bide-zortasunaren eta itsasoko sarbidearen zehaztaperen grafikoa egitea, eta Askadako erreka bokaletik (Askadako bidea 1) begiratoki ingururaino (San Pelaioko bide nagusiaren 63) erabilgarria izango dan bide-zortasuna eta itsasoko sarbideri buruzko proiektua idatzi eta egokitzapen-obrak egitea.

Bertaratutako EAJ-PNV taldeko lau zinegotziak (José Antonio Abio, Iker Muruaga, José Luis Urrutia eta Gorka Azaola) abstenidu egin dira.

7.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Inork ez dau egin eskaerarik ez galderarik.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 19:45ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria